

## #KANPAINA

Euskal gizartea giza eskubideak defendatzen dituztenen alde mobilizatuz.

# #GureTxanda #NosToca

Gaur, ekainak 25, Mundu Bat Fundazioak eta Nazioarteko Bake Brigadek (PBI) #GureTxanda #NosToca kanpaina abiarazi dugu sare sozialetan.

COVID-19aren pandemiak interdependentek garela eta giza eskubideen defentsa guztien esku dagoela ikusarazi digulako.

Gure ekintzek ondorio globalak dituztelako.

Gure bizitzak interkonektatuak daudelako.

#NiEreDefendatzenNaute-lako #TambiénMeDefienden

[www.vocesdefendoras.org](http://www.vocesdefendoras.org)

### Zer ikasi dezakegu pandemiak utzi dizkigun ikasbideetatik?

Mendebaldeko Saharan, Palestinan, Hondurasen, Guatemalan, Kolonbian eta Mexikon ez da inoiz giza eskubide UNIBERTSALEN defentsa eten:

Osasun Publikoa - Etxebizitza duina - Kalitatezko hezkuntza publikoa - Askatasuna - Lurralde propioaren defentsa - Berdintasuna, edozein dela generoa, sexua, etnia edo erlijioa - Indarkeriatik libre bizitzeko eskubidea - Bakean bizitzeko eskubidea.

Baina eskubideen krisialdiak ezberdintasun estrukturalak sakondu ditu eta agerian jarri ditu, eta orain #GureTxanda da, #NosToca. COVID-19aren pandemia geldiarazteko neurriak instrumentalizatuak izan direlako, GURE eskubideak defendatzen dituztenen hilketak inpunitatean utziz.

- Mexikon, indarkeria matxistaren kasuek eta feminizidioek gora egin dute osasun krisialdian.
- Kolonbian, konfinamendu garaian, lider sozialen aurkako erasoek eta hilketek gora egin dute hainbat eskualdetan.
- Guatemalan, pandemia garaian, nekazal komunitate indigenek beren lurraldeen hustea pairatu dute, proiektu agroindustrial eta extraktibo erraldoiek aurrera jarraitu duten bitartean.
- Hondurasen, LGTBQ+ komunitatea pandemiaren ondorioak modu neurrigabeen pairatzen ari da, historikoki jasan duen bazterkeria sozial, laboral eta ekonomikoagatik.
- Sahara okupatuan, COVID-19an testuinguruak isiltasuna sakondu du, eta herri saharaiari autodeterminazioaren alde agertzeko eskubidea ukatzen jarraitzen zaio.
- Palestinan, pandemiak eskolak ixtera behartu zuen, milioi erdi haur baino gehiago hezkuntza gabe gelditu ziren, mende erdi baino gehiago konfinatuta daramatzaten lurralde batzuetan itzelezko inpaktua eraginez.

Eskubide guzti hauek egokitzen zaizkigula uste baduzu... Gu defendatzen gaituztenak defendatzea tokatzen zaigu.

#GureTxanda da #NosToca

Gure bizitzetan pandemiak eragin dituen efektuak hunkitzen bagaituzte... Eskubideak defendatzen dituztenak defendatzea tokatzen zaigu, #GureTxanda da.

Han eta hemen giza eskubideen defentsa artikulatzeko eta indartzeko defendatzaileak babesteko elkartasun sare bat sortzeko #GureTxanda da.

Sare sozialetan aurki gaitzazu eta gehitu itzazu hashtag hauek zure argitalpenetan:

#GureTxanda #NosToca #NiEreDefendatzenNaute #TambiénMeDefienden

Eta batu zaitetz plataformara: [www.vocesdefensoras.org](http://www.vocesdefensoras.org)

### HARREMANETARAKO / PRENTSA

**PBI:** Miriam García Torres (Sentsibilizazio arduraduna) · *E-mail:* sensibilizacion@pbi-ee.org


T.W.: +(34) 602 033 566  @PBI\_EE  Peace Brigades International - PBI

**Mundubat:** Andrea Gómez (Giza Eraldaketarako Hezkuntza Teknikaria) · *E-mail:* agomez@mundubat.org

Tel: +(34) 944 162 325  @mundubat  Mundubat Ongd  mundubatongd

# GURE TXANDA!

#NiEreDefendatzenNaute



# ¡NOS TOCA!

#TambiénMeDefienden